

# URTAIN'I ESKUTITZA

Agur adixkide:

Azken aldi ontan gure Gipuzkoan gauzak zerbaiz aldatu dituk. Len bokseorako apiziorik baziran ere etzian ematen. Jaialdi bat antolatuta jende gutxi ezalzan ukan, etzizkian gogozkoak nunbait. Orain ordua, besterik dek. Anoenan inoiz eza-gutu dan betekadirik aundiena ik lortu dek. Bejondeikela Urtain.

Ik artu berri dekan bidea dala ta, amekia eztabaida bezegok bazterretan. Batzuek ez dituk igan sinisten, besteak berriz izen aundiko txapel-dun izatera iritxiko aizela ez dituk dudarik egiten. Nik, egia esan, ez nauk ez bat ez beste taldekoka, bakseoz eztekiat ezer, ez nauk bokseoz zale.

Orduan zer dala ta nere eskutitza?

Asitako bizikera berriari jarralpen on bat emateko aukera, konsejua, norik emana izango dek noski. Sarritan oso iritzi ezberdinek izango dituk, danak borondate onez emanak izanagatik, aintzat artzerik ez dek izango. Nik ere zerbaiz esan nahiz dit, nere esanak gogozkoak ezbaizki, arren, asmo onez idatzialk izan dirala pentsatu zak, eta erdi erditik asmatuko dek.

Denbora gutxian marka aundiak autsi dituk, indarra ta adimen argiak eure egokierakin bat egiten dituk. Bestaldetik, apiziorik ez omen dek palta. Gai onta gauz bakarra ezkiat, orandik asieran geudek, eta zer ikusi aundia zegok, baiñan euskaldunen itzaropena egi biurtuko niok. Etzeukat dudarik.

Ire izena oso zabaldua zegok, gure lurraldez kanpo Urtain dala ta, asko itzegiten dek. Euegan erantzukizunaren arra lanean ariko dek. Baiñan lasaitu ari, ta poliki poliki ik amesten dekan maila ortara iritxiko aiz.

Norbaitek ik bezelako izen eta ospe badu, ire jarduna dala zezen plaza ainbeste jendez batetzen danean, eta batez ere euskaldunak diranean, zer pentsatua eman bear dik. Nolan jendearen esperantzari uko nixtroa ikusterik ez zuten izan ortegini?

Ik bokseadore aliz, erresponsabilidadao euren dek. Ire kirol bidea dala ta, ordea, beste arazo bat ere aintzat artu bearrekoa dek. I, etzekiat euskaldun izakera gogozkoa zaiken ala ez, euskaldun aliz, ire biziltzan euskaldun bezela jokatu bear dek, bokseoko jardunak euskaldun-ku bete bear dituk, igan Euskaierria, bere egoera garratza, bere asmo ta naiak ikusi ditzatela. Ta, egia esan, ez daukak aukerabiderik, emen daukak aurrez aurre bear bada ire bizitzeko bururakarik gogorrena.

Bearbada ire eginbearra bestelakoa dala esango didak, erantzukizuna kirolari bezela besterik ez dala, dagonokoz ezari ditekian zama, euskaldunen ametsa aurrera eramaten buruasterik pranko badekala. Ez, ez dek nolainakoa, artutako bidea bidetxigor aldatasua zirudik. Baiñan Urtain adixkide, bokseok eskaltasuna, euskal izakera baztertzeko baimenik ez dik ematen. Zoritxarrez, gure kirolariak gai ontan oso mozt ara kokor agertu dituk. Eorrek utseino ori bete ezakek, ta nolabait beartura ago.

Azaldu adi bade nun nai ta beti euskaldun bezela, euskera ire izkuntza erakutsiez, egindako galdarai euskeraz erantzunaz. Interes aundia badituek besteekin bezela intereratuta inquiratu dezatela. Urtain jauna, gai ontan postura artu bearra zegok.

Eorrek in batera pama ta aintza izango dituk, eta sortzeriari ere ospea emango omen dik. Nik ez diat orrelakotan sinisten. Ik eure erriari ez diok batera onik egingo, euskaltasun bidetik jokatu ez bada. Nik kirolari bezela etorkizun ezin oheago bat opa diat, baiñan euskaldun bezela, erriaride aizenez, euskal izakera aintzat artuz, ekin dezatela.

keala eskatzen diat, oheago esan esijitzen diat. Gahontzean, ire bururakarik garrantzitsuenetakoa irabazi gabe geldituko aliz, ire jardunak etzizguk batera onik egingo.

Bokseadore izatearren, garalpena iritxi ahal izateko, egunero entrenametu gogorren monean arkitzen aliz, egunen batean frutua emango duan itzaropenez ari aiz. Guk ere, herri bezela planteatua degun ekin-tza ta eginbide ontan eguneroko bizitza euskaldun bezela bizitzea dek entrenameturik onena.

Beste eskabide bat ere egingo nik, ik baserriari asko zor diok, eta

naiz aurrerantzean eldendurik bizi bear izan, arren ire anal ta adixkideen prolemak aintzat artu bear dituk. Eorrek al dekan moduan baserriarren alde jokatu zak, batez ere baserriar izakeraz ez adi egundo lotsatu.

Bide ortan jarraituz, aintzarik gabeko garalpena ire ta eure erriaren onerako iritxiko dek.

Agur bada, Urtain, barkatu akidek eskutitzi on! sermoi usaia artu badiok, ik ondoko ententituko didak noski. Orregatik ire egingitza-erantzunaren zai gelditzen dek.

MIKEL UGALDE

## Pariak, eztagoz India'n bakarrik

Badagoz gure aintan injustzialk eta elitzake zuzena izango eural lepoa emotea. Ikusi egin bear doguz non dagozan eta alegiak egin oker dagoana zuzentzeko.

Ikusi izparngietako anunzioak eta bertan irakurriko dozue, danetan berogei urteko muga iminten dabela. Ori, materialismo utsa da.

Beste injustizia andi bat da jubitlauk artzen dabene pentsioa. Diru orregaz, ezin dabe bizitza difa bat erori eta euren gurasoen karidadez bizi dira. Ori ezta zuzena.

Eta orain, ara or atzo bertan jaso yatan. Eta nik asmaurikoa, egia baño. Neska-mutil onen izen eta zuzenbideak emen daukadaz.

Nire ezaguna dan neska bat mutil batogaz dabil eta maystzen eskonteko amoa dauke. Mutila, elkeitza ta oflazioz eta obretan, etxe barrutan, itzalastuok iminten dauz, bere kontura. Baña orain, ezkondu baño len, lan ziurragoa, fijoagoa, gura dau, ta fabrikatetik ibili dan nominakoa langille iz sartzeko. Eadada: 35 urte.

Baña gure mutilak pekatu andi bat dauko: errena da. Eta gure fabriketako usabak eta zuzendariak, ateak itxi dautsez. Eta neska etorri yai laguntza eta, ik nik lan egiten dodan fabrikari sartu leiken mutila.

«Pariak» aintatuten doguzanean, India'runtz bihurtun dogu burua. Baña gure artean, badagoz pariak. Gure soziedadeko pariak dira zarrak eta gaikoak. Karidadez bizi diran guztiak, pariak.

Bildur emoten daust pentsatzen zer sentidu bear dan karidadez bizitene danean. Gizonak bere derrofa asmau bear dau, ezertarako ezala sentidu, India'ko pariak iz. Eta pentsatu bear dau mundu ontan eztagoa justiziarik. Bere barrua aulduta, biziteko gozo barik, bere sorte txarrena esperantza, itzaropena galduta.

Bear bada, zar eta gaixo orreik eztabe eurentzat ezer eskatuten. Oituta dogoz sufrimentera. Eta ori da txarrena. Norberaren deretxoa non dagon ez jakitea, edo jakitean,



Indarra galdurik, bere alde bururakarik ez egiten.

Injustizia oneik nik ikusten dodaz. Gure gizarteko pariak eztabe karidadeanen berrik. Eurak, justiziarren gahetik emon bear yake, zarrak eta gaikoak merezi daben errespetoz eta inaltasunez.

Baña eurak, deretxo osoz, gizonak diran eskero, bizitza difa bat eukiteko eskubidea bear dabe.

XABIER GERENO



## ARTISTAK ERE BEREN PREZIOA DUTE

Bai, artistak ere beren prezioa dute, futbolistak eta ziklista aña; edozein espektakuluko aña. Eta ar euskal kantu badator, euskaltzaleontzat aibat arago. Artean ona ta ugaritasuna sortzeko, gutxiarik, denbora bear da, eta denborak dirua balio du, zeren euskal artistak ez pentsa kama-leioak bezala —esatea or danez— aize utsarekin bizi diranik.

Lengo batean, ZERUKO ARGIA-ren 286-287 zenbakian irakurri nuan Iturriar-ek Bilbotik zions, euskal kantariari buruz. Ospea duan kantari berri oietako batek bost mila peseta eskatu dituala funtzio batean eta ariturik.

Berriz ere lelo zaarrera goaz. «Anaitasuna» aldizkarian (apirillaren 15-ekoan) bertsolarien alde esan nuan berbera asango dut: Guretariko askori normala iduritzen zaigula futbolistak aberestea; baiña bertsolari edo euskal kantariak merkeak izan bear dira.

Kontu onetan, kantariaren ospeak eta merituak du diru-balioaren neurria Eskatzen duana norik emon dagoanean, beti da neurri ona. Garetti egia danean, merkeagoen billa joan. Komertzio librean normala dan bezala. Eta, orrek ez dut uste kantari baten euskeraganako ideala gutxitzen duanik. Erria pagatzeko gartu dagoanak egiten du prezioa.


Euskeleerrian izango ziran, eta dira, duan kantatu dutenak, baiña Iturriar-ek Iparragirre jartzen du adibidetzat eta orri ez derizkiot gauz ain segurua. Iparragirre profesional bat zan. Gaiñera, euskeraz kantatuaz munduan zear bizitza atera zuana, bohemo oietakoa bazan ere. Eta Iparragirre duan kantatzen ez zuanaren agiri ederra da Xempelar-ek bertsoz egin zion desapito ura. Desapitozko kanta onen doñua da, pertaera ori bide, gaur bertsolariaren Iparragirren doñutuzt ezagutzen dana:

Iparragirre abilla dela askori dyot aditzen... Eskola ona eta musika... ori oyeekin sorbitzen. Ni enazu ibiltzen kantuz dirua biltzen komerziante moduan; debalde pesta preparenzen det gogoz dedan orduan.

Beraz, «Gernikako arbola»-ren egillak, biziko bazan eta sortuko bazuen, ez zuan duan kantatzen. Eta bear bada eskerrak orri aal izan zuan gaur ere ain estimagarri ditugun ainbeste kanta sortzea. Beraz, Iparragirre zenbat kobratzen zuan ez badakigu ere, ortatik bizi zala badakigu. Baitea ere, bere kanta pizgarriegatik desterruaren prezioa kostatu zitzaioa. Eta gaur ere, gure zenbat kantari berrik prezio ori ubillago izango dute foballistak baiña.

Gure artean, euskera indartzearrekin batean, artea sortzeko ez ote du inoiz balioko foballista edo ziklista on baten profesioak aña?

J. SAN MARTIN



Asteazkenero, gabeko amaiketari, SER katearen bidez eta beste España'ko irratsaio batzuen bitartez

# Coca Cola'k eskeintzen dizuen irrati-aldia